

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Kulturak BIMEn aurkeztu du 948 Merkatua-Nafarroako Arteen Merkatuaren 2018ko programazioa

The Disappointments banda nafarrak gaur arratsaldean joko du Bilboko musika azokan

Osteguna, 2018.eko urriak 25

[948 Merkatua](#)Nafarroako

Arteen Merkatua aurkeztu da gaur Bilboko Bizkaia Internacional Music Experience (BIME) azokan, atzodanik bihar arte garatuko den hitzordu honetan bildutako programazio musikaleko ehun bat profesionalen aurrean. BIMEko sustapen-ekintza hau Vianako Printzea Erakundea-Kultura Zuzendaritza Nagusiak

Nafarroako kultura eta sormen industriei laguntzeko abian jarri eta FiraTàrrega, Mercartes eta dFeria bezalako azoketara zabaldu duen lanildoari atxikita garatu da.



Munarriz, programaren aurkezpenean

Aurkezpena Nafarroako Gobernuako Kultura Sustapenaren eta Berrikuntzaren Ataleko buru Estefanía Munarrizek egin du, BIME Pro topaketaren egoitza bihurtu den Bilbao Exhibition Center (BEC) erakustazokako Luxua eremuan. Nafarroako kulturak azoka honetan izandako parte-hartzea zuzeneko jardunera ere hedatu da, The Disappointments taldeak gaur iluntzeko 20:15ean Bilborock aretoan eskainiko duen emanaldiarekin. Nafarroako jazz-soul banda honek kontzertua eskaini zuen martxoaren 24an Bayonne Live jaialdian, 948 Merkatua-Nafarroako Arteen Merkatuaren 2017ko edizioan izandako parte-hartzearen harira.

Nazioarteko azoka

BIME azoka musika sektorearen garapen komertziala, ezagutza eta esperientzien trukea, negozioaren sorkuntza eta formakuntza eta berrikuntza tarteko dituen hitzordua da. 2018ko edizioan, BIMEk topagunea eskaini nahi die musikako eta beste industria batzuetako profesionali, negozio-bide berriak sortu eta trukatzeko aukera izan dezaten. BIMEk musikagintzako industriari dagozkion pil-pileko gaiei buruzko hausnarketagunea ere izan nahi du, baina zeharkako gaiei tartea eskainiz eta teknologia berrietako, modako nahiz bideojokoetako profesionalak barne hartuz.

BIME Pro topaketak 2.000 lagun, 1.260 enpresa, 600 speed-meeting eta 220 hizlari bildu ditu.

Era berean, bi egunez, BIME Livek 29 artista programatuko ditu 23.000 pertsonaren baino gehiagoren aurrean, eta BIME Cityk Bilbo osoa musikaz beteko du 50 artistak hiriko 10 aretotan eskainiko dituzten ikuskizunei esker.